

BALDINTZA TEKNIKO ETA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA

“DEMAREN KOMUNIKAZIO KORPORATIBOAREN AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA”

ADJUDIKAZIO MODUA:	Prozedura murriztua
ZERBITZUAREN XEDEA:	DEMAREN KOMUNIKAZIO KORPORATIBOAREN AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA
BALIO ZENBATETSIA:	60.000 € (BEZik gabe)
ADJUDIKAZIO EPEA:	urtebete
KONTRATUAREN HASIERA:	2021/01/01
KONTRATUAREN AMAIERA:	2021/12/31
URTEBETEKO LUZAPENA:	BAI
LUZAPEN KOPURUA:	2
LUZAPEN BAKOITZAREN BALIO ZENBATETSIA:	60.000 (BEZik gabe)

1.- DEMARi DAGOKIONEZ

DEMA Bizkaiko Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sailaren mendeko entitatea da.

Enplegu bila, lan egoera hobetu nahian eta enpresa bat sortu nahi duten pertsoneri zuzendutako programak kudeatu eta sustatzen ditu. Gaur egun honako jardun ildo hauek ditu:

- Laneratzeko bide-laguntza
- Ekintzaitza kultura sustatzea
- Enpresak sortzea
- Enpresak finkatzea

DEMAren forma juridikoa irabazi asmorik gabeko elkartearena da, Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan jasotakoa B/1661/89 zenbakiarekin, 1989-09-15ean, **ASOCIACIÓN DE APOYO AL DESARROLLO EMPRESARIAL DEMA EMPRESA GARAPENA DE BARAKALDO** izenarekin. Egoitza Barakaldo Elkartegian dauka, Fanderia kaleko 2. zenbakian, Barakaldon (Bizkaia); IFK zenbakia G48408405 da.

Webgunea: www.dema.eus

2.- KONTRATUAREN XEDEA

SPKLren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, kontratuaren xedea “DEMAREN komunikazio korporatiboaren aholkularitza, laguntza eta kudeaketa zerbitzua” zerbitzua ematea da.

Plegu honen ebazpenetik sortzen den kontratuaren xedea izango da Demaren jardueretarako komunikazio arloko aholkularitza eta laguntza iraunkorreko zerbitzua kontratatzea.

BETE BEHARREKO ZERBITZUEN AZALPENA:

Ezinbestekoa da DEMAKo zerbitzu publikoen pertsona hartzaileek erakundea ezagutzea eta aitortzea, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dagoen Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia zer den ulertzea; hortaz, beharrezkoa da haren eguneroko komunikazioa kudeatuko duen **komunikazio estrategia** bat egitea. Dema Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailari atxikita dagoenez, eta ikusgarritasun komuna proiektatzeko helburuarekin, zerbitzua modu koordinatuan egingo da Demak emandako jarraibideen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ezarritako zuzendaritza, estrategia eta komunikazio-irizpideen arabera.

Horretarako, beharrezkoa da **Foru Agentziak Bizkaian izango dituen jarduketa nagusien hedapena bermatuko duen kudeaketa izatea, online zein offline kanaletan.**

Online kanaletatik hedatu eta zabaldu beharko dira DEMAK sortutako eguneroko albisteak zein jarduera eta sektorearekin lotutako informazioak, estrategia betetze aldera, DEMAREN presentzia fisiko zein birtuala duten ekitaldiak barne.

Horrez gain, urtean zehar, programen deialdia irekitzen denean, zenbait une puntualetan komunikazioa indartu egin behar da, **offline baliabideetan** argitalpenak eginez. Online eta offline komunikazio estiloa eta irizpideak bateratzea ezinbestekoa da; horrenbestez, enpresa berberak egingo du, modu integratuan.

2016. urte amaieratik, DEMAK, Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko gainerako enpresa publikoek bezalaxe, bere jardueren eta ekitaldien edukiak eta ekintzak jakinarazten ditu Aldundiak horretarako sare sozialetan prestatutako kontuen bitartez: @Bizkaia kontu nagusia, eta hortik sortutako beste kontu batzuk; horiek guztiek zenbait sare sozialetan funtzionatzen dute: Twitter, Facebook eta Google+. DEMAK, horrez gain, LinkedIn eta Youtube-ren en bitartez ere komunikatzen du, kontu independente batetik: DEMA Enpresa Garapena.

Horregatik, **enpresa bat kontratatu behar da, honako zerbitzu espezializatu hauetaz arduratzeko: strategiaren diseinua, komunikazioaren laguntza eta kudeaketa, kanalen mantentze-lana eta Community Management zerbitzuak.** Horrez gain, offline edukiak diseinatu eta egiteaz ere arduratu beharko da, halakoak daudenean, eta Demari laguntza eman beharko dio ekitaldietan, antolatutako jardueren komunikazioaren estaldura eginez.

Zerbitzu horiek marka sendo eta bakarria sortzen lagundu beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren markarekin. Aitortua izatea enpleguaren, ekintzaitzaren eta enpresaren inguruan, bai eta herritarrek oro har ere, ospe ona bilatuz. Enpresa kontratatua sare sozialen funtzionamendu ezin hobez eta etengabe eguneratzeaz arduratzea espero da, baita lortu nahi diren helburuak eskuratzeko beharrezkoak diren hazkunde eta berrikuntza tresnez arduratzea ere.

Demak kudeatu ohi dituen programen bolumena urtero errepikatzen da. Horrek eragin dezakeen lanaren dimentsioa ikusi eta baloratze aldera, azken urteetako jardueren memoriak enpresa parte hartzaileen esku hartzen jarri ditu Demak hemen: <https://www.dema.eus/resultados/>

Lan karga Demaren jardunera doitu da: Demako ekitaldiak antolatu eta programak betearaztea, estaldura enpresa adjudikaziodunak egin beharko du, albisteak sortuz eta idatziz, ekitaldira joanez DEMAK beharrezkotzat jotzen duenean (urtean 6 ekitaldi, gehienez ere), online hedapena eginez eta, hala egiten denean, offline hedapenerako beharrezkoa den guztia prestatuz.

Enpresa adjudikaziodunak ZERBITZU ZEHATZ hauek egin beharko ditu, DEMAK eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak gainbegiratuta eta zuzenduta:

1.- Demaren komunikazioaren estrategia orokorra prestatzea eta planifikatzea, Saileko komunikazio arduradunek ezarritako zuzendaritza, estrategia eta irizpideen arabera.

2.- Eduki digitalak sortzea zabaltzeko, Demako sare sozialetan argitaratzeko eta kontuak kudeatzea. (Gaur egun: sare sozialetan @BizkaiaEmprende, @BizkaiaEmplea eta @BizkaiaEmpresa Twitter-en eta Facebook-en; DEMAren LinkedIn profila, DEMAren Youtube kanala eta kontratuaren indarraldian zehar sor daitezkeen sare sozial berrietako balizko kontuak).

3.- Sare sozialen eta webgune propioen kudeaketaren aholkularitza eta auditoritza (Twitter, Facebook, LinkedIn, Youtube eta Demako webguneetarako).

4.- Kudeatzea online sustapeneko ekintzak, Demako programetan izena emateko erakarpen mailingak eta publizitatea sare sozialetan; emaitzen neurketa eta monitorizazio txostenak.

5.- Deialdiak zabaltzeko berriazko kanpainak sortzea: online eta offline idatzizko hedabideetarako edukiak idaztea eta kudeatzea, DEMAren koordinatuta, eta Saileko komunikazio arduradunak finkatutako zuzendaritzaren, strategiaren eta irizpideen arabera.

Komunikazio lana batez ere hedabide digitalen bitartez zabaltzen bada ere (posta elektronikoa, sare sozialak, Demako webguneak), programen deialdi berriak irekitzean offline baliabideak indartzea beharrezkoa da. Halakoetan, DEMAK enpresa adjudikaziodunari eduki zehatzak egiteko agindua

eman ahalko dio online eta offline komunikazio-estiloa bateratzeko.

6.- Demako webgune aktiboen edukiak eguneratzea. Enpresa adjudikaziodunak edukiak idatzi, kudeatu eta eguneratu beharko ditu kontratuak irauten duen bitartean Demak aktibo izango dituen webguneetan. (berriak, banner espezifikoak, testuak eguneratzea, atalak berrikustea eta abar).

DEMAREN webguneak eguneratzeko lanetan webgune bakoitzaren edukiak kudeatzea sartuko da.

Gaur egungo webguneen azalpena:

Demaren webgune instituzionala (www.dema.eus): gaur egun programak, jarduketak, albisteak argitaratzen dira eta izen emateak kudeatzen dira. Programen bolumena azken urteetan egondakoaren parekoa da; izan ere, Demaren programa nagusiak urtez urte errepikatu ohi dira (Demak azken urteetan argitaratutako urteko jardun memoriak kontsultatu).

Enpleguaren web ataria: oraindik prestatzen ari dira, eta 2021eko erdialdean martxan hasiko dela aurreikusten da. Enpresa adjudikaziodunak bere zerbitzuak eman beharko ditu atari horretarako edukiak idazteko, enpleguari eta ekintzaitzari lotuta, martxan jartzeko sortze fasean zein funtzionatzen hasten denean, atalak modu jarraituan eguneratzeko. Web atariaren proiektu bat da; Demako enplegu programen deialdiak argitaratuko dira bertan, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu Foru Sailak diruz lagundutako ikastaro eta programa aktiboen deialdi guztiak ere; hala, herritarrei modu zentralizatu batean jakinaraziko zaizkie, bilaketa irizpide pertsonalizatuekin, eta inskripzioak kudeatzeko leku gisa ere balioko du, parte hartu nahi duten pertsonengandik eta programei alta ematen dieten entitate laguntzaileetatik. Gainerako atalak ere eguneratuko dira; albisteak, laguntzak, enpleguarekin/ekintzaitzarekin lotutako prestakuntza pilulak, atariaren aurkezpena, jarraibideak eta jardun ildoak, “Kontatu zure esperientzia”, “Jarri harremanetan” atalak, etab. Plataforman kontsultak egiten dituzten pertsoneri erantzun egingo zaie. Euskarri teknikoa emango zaie eguneraketak/ikastaroak altan eman behar dituzten entitateei. Atariaren jarduerari, izena emandako pertsoneri eta abarri buruzko txostenak egingo dira, aldian behin. Atari honetako eguneratzeak gutxienez astean behin egingo dira.

Demaren webguneak eguneratzeko lanetan webgune bakoitzaren edukiak kudeatzea eta edukiak zuzenean argitaratzea ere barne hartuko da, bi hizkuntzetan.

7.- Laguntza ematea Demari ekitaldiak eta hitzorduak planifikatzeko, ekitaldiaren eta lotutako programaren komunikazioari eta albistearen estaldurari dagokienez. Demak antolatutako ekitaldietan parte hartzea, ondoren idatzi eta argitaratuko den albistea estaltzeko (urtean 6 ekitaldi, gehienez ere).

Bestelako xedapenak:

- Enpresa adjudikaziodunak adierazitako edozein baliabidetan komunikatzeko idatzitako testu guztiak **Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko dira: euskaraz eta gaztelaniaz**. DEMAk hedabideren batean argitaratu nahi dituen programen, txostenen, memorien, pleguen edo antzeko agirien funtzionamendurako oinarriei buruzko testuak enpresa adjudikaziodunari eman beharko dizkio bi hizkuntzetan.
- Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu kontratatutako zerbitzua osorik betetzeko beharrezkoak diren gastu guztiak: prestatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, lekualdatzeak, bilerak, tresna baliabideak, eskulana, Gizarte Segurantza, tributazioa, erantzukizunak eta era guztietako aseguruak, eta gainerako kargak nahiz betebeharrak. Horiek guztiak enpresak bere gain hartuko ditu behin betiko adjudikatzen zaionetik, bai eta kontratutik edo lizitazioan parte hartzetik sortutakoak ere. Halaber, prestazioa betetzeko behar diren baimenak eta lizentziak (ofizialak nahiz partikularrak) lortu beharko ditu.
- Enpresak **hiru hilean behingo txostena** aurkeztu beharko du, eta txosten horretan DEMAren kudeaketaren, hedapenaren, trafikoaren eta posizionamenduaren bilakaera/balantzea agertuko da. Hori guztia jasoko da urtea amaitu ondoren Demari emango dion urteko memoria batean.
- Enpresak erabilitako baliabide grafikoek, argazkiek eta antzekoek egile-eskubiderik ez dute izan beharko, eta hortik sortzen den erantzukizun guztia enpresaren gain geratuko da.
- Argitalpen guztietan Demaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren logoak erabiliko dira, komunikazio eta hedapen lanak lerrokatuta eta koordinatuta egon daitezen Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko zuzendaritzaren, estrategiaren eta komunikazio-irizpideen arabera.
- Argitaratutako eduki eta testu guztiek bete egin beharko dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Euskal Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua. Bereziki lengoaia ez sexistari eta irudi ez sexistei dagokienez. Halaber, Bizkaiairen irudiaren parte gisa, “aniztasunarekiko errespetuzko berdintasuna eta emakume eta gizonen zehaztasunen integratzailea”.
- Lan horiek egiteko, eta Demari egunero estaldura emateko, enpresa adjudikaziodunak plantillako teknikari bat gutxienez DEMAren esku jarri beharko du arreta emateko ordutegi zabal samarrarekin.

Kontratu hau ez dago loteetan banatuta, eta SPKLren 99.3.b) artikuluan du babesa.

3.- KOMUNIKAZIOAREN USTIAPEN ESKUBIDEAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

Kontratua bukatu zein aldez aurretik suntsituz gero, kontratua betetzeko erabilitako dokumentazio, software eta entregagai guztien titulartasuna DEMArena izango da. Horrenbestez, DEMAk entregagai guztiak hedatu, aldatu eta dibulgatu ditzake, osorik zein partzialki, enpresa adjudikaziodunaren aurkakotasunik gabe.

Enpresa adjudikaziodunak baldintza horiek errespetatzeko konpromisoa hartzen du, eta kontratuaren entregagaiak ez ditu erabiliko, komunikatu edo dibulгатuko DEMaren berriazko baimenik gabe; erreklamazio legal, profesional, ekonomiko edo edozein motatako erreklamaziori edo ekintza oro abiarazteari uko egiten dio.

Enpresa adjudikaziodunak komunikazioaren edozein zati osorik edo partzialki erabiltzeari uko egiten dio.

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

2021eko urtarrilaren 1ean hasiko da prestazioa ematen eta 2021eko abenduaren 31n amaituko da. Urtebeteko bi luzapen izan ahalko ditu, eta, beraz, kontratuak gehienez 2023ko abenduaren 31 arte iraun dezake, baldin eta bi luzapen horiek gauzatzen badira.

5.- ZERBITZUAREN BALIO ZENBATETSIA

Zehaztutako zerbitzu guztietarako gehieneko prezioak ezingo du gainditu **HIRUROGEI MILA EURO (60.000.-€), gehi BEZa**, urteko lehen epealdirako.

Hala badagokio, egiten den urteko **luzapen bakoitzaren prezioa** lehenengo urtekoaren prezio berbera izango da.

Ordaintzeko era: prezio osoaren hamabirena hilero fakturatuko da, gehi BEZa. Fakturarekin batera, hilabetean egindako lanen zerrenda emango da.

Ordainketa gehienez hogeita hamar (30) eguneko epean egingo da faktura jasotzen denetik, hileko lanen txostena entregatu ondoren.

Zerbitzuaren aldaketak edo etenaldiak eta, horren ondorioz, zenbateko adjudikatuen aldaketa: adostutako zerbitzuak murrizten edo areagotzen badira, zerbitzuaren prezioa proportzionalki murriztu edo handituko da. Demak, ezusteko inguruabarrak direla medio, zerbitzua aldi baterako edo behin betiko eten behar badu, adjudikaziodunari jakinaraziko dio, eta zerbitzuaren prezioa proportzionalki aldatuko da. Kasu horiek ez diote adjudikaziodunari inolako eskubiderik emango kalte-galerarik erreklamatzeko.

6.- PROZEDURA MURRIZTUA. FASEAK ETA EPEAK:

Prozedura murriztua baliatuko da, eta lau fasetan banatzen da enpresen proposamenei dagokienez. Parte hartzeko eskaeren lehenengo fasea, gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko, eta azken fasean, DEMAk hautatutako enpresek baino ezingo dute esku hartu, eta proposamen teknikoak nahiz ekonomikoak aurkeztu ahal izango dituzte. Jarraian, faseak eta epeak zehazten dira:

FASEAK ETA EPEAK:

- **PARTE HARTZEKO ESKAEREN FASEA:** prozedura murriztuan parte hartu nahi duten enpresek 15 egun naturaleko epea izango dute parte hartzeko hautagaitzak aurkezteko, iragarki hau BAOn argitaratzen denetik hasita. Fase honetan, enpresak gaitasun eta kaudimen baldintzak baino ez dituzte egiaztatu behar, 7. puntuan jasotakoaren arabera.
- **ENPRESAK HAUTATZEKO FASEA:** DEMAk hautatutako enpresak aukeratu eta gonbidapena bidali beharko die 10 egun naturaleko epean, 8. puntuan jasotakoaren arabera.
- **PROPOSAMENAK AURKEZTEKO FASEA:** DEMAk hautatutako enpresek proposamen teknikoak eta ekonomikoak 10 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dituzte, 9. puntuan jasotakoaren arabera.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA MODUA: hasierako hautagaitzak nahiz azken proposamenak paperean aurkeztu beharko dira, gutun-azal itxietan, DEMAren bulegoetan (Barakaldo Elkartegia, Fanderia kalea 2, Barakaldo-Bizkaia).

7.- PARTE HARTZEKO ESKAEREN FASEA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA EGIAZTATZEA. LIZITATZEKO ETA KONTRATATZEKO GUTXIENENKO BALDINTZAK. PARTE HARTZEKO ESKAEREN FORMA ETA EDUKIA

Enpresa interesdun orok parte hartzeko eskaera aurkeztu ahal izango du 15 eguneko epean, lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, gutun-azal itxi batean, lizitazailleak edo haren ordezkariak sinatuta, izen-abizenak, enpresaren izen soziala eta kargua adierazita. Bertan, testu hau agertuko da:

“DEMAREN KOMUNIKAZIO KORPORATIBOAREN AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKAERA”

“KAUDIMEN BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK”

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona fisiko edo juridiko espainiar zein atzerriarrek, baldin eta beren gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa badute, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratatzeke ezarritako debekuetako batean ere sartuta ez badaude eta beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute.

Halaber, kontratuaren xede diren prestazioak betetzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

Lizitazio honetan parte hartzeko eskaera aurkeztu nahi duten enpresek jarraian aipatzen diren **kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko eta profesionalaren baldintzak** bete beharko dituzte, baita horiek egiaztatu ere, gutun-azalaren barruan egiaztagiriak aurkeztuta.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresa beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahalko da, erakunde horiekin dituen harremanen izaera juridikoa dena dela ere, baldin eta kaudimen eta bitarteko horiek kontratua gauzatzeko epealdi osoan izango dituela egiaztatzen badu eta jotzen duen erakundeak kontratatzeko debekurik ez badu.

Hala gertatuz gero, argi eta garbi adieraziko ditu: elkarlanerako dituen enpresak, haiekin lotzen duen harreman juridikoa eta enpresa bakoitzak dituen baliabideak.

Enpresa eskatzaileek gutxienez honako kaudimen betekizun hauek bete beharko dituzte:

KAUDIMEN EKONOMIKOA:

Aski kaudimen ekonomiko eta finantzario egiaztatzea, enpresa adjudikaziodunaren fidagarritasuna bermatzen duena. Honako hauek dira agiri bidez justifikatu beharreko gutxienerako baldintzak:

- Negozio zifra orokorrari buruzko adierazpena, eta azken bi ekitalditan enpresak egindako zerbitzu edo lan handien azalpena, aipatuz kopuruak, datak, eta onuradun publiko eta pribatuak.
- Erregistrotik igaro diren azken bi ekitaldietako urteko kontu ofizialen laburpena, kontuak saneatuta daudela eta komunikazio-jardueretan urteko negozio-zifra 40.000 eurotik gorakoa dela egiaztatzeko.
- Erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat dagoela frogatzen duen agiria, gutxienez 300.000 eurokoa.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA:

Enpresak zerbitzua emateko duen antolatzeko gaitasuna justifikatzeko behar besteko esperientzia, giza baliabide profesionalak eta baliabide teknikoak egiaztatzea.

Kaudimen teknikoaren gutxienerako betekizunak honako hauek izango dira:

ENPRESARI DAGOKIONEZ:

1. **Komunikazioaren ezagutza orokorra egiaztatzea**, eta esperientzia erakustea komunikazio instituzionala edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen edo sektore publikoaren berariazko programaren bat kudeatzen. Egindako zerbitzuaren deskribapena, data, zenbatekoa eta entitate onuraduna biltzen dituen adierazpena aurkeztu beharko du, **eta lan bat gutxienez egiaztatu beharko du hurrengo arlo hauetako bakoitzeko:**

- Offline komunikazioa. Estrategia orokorra. Komunikazio kanpainak: plangintza, baliabideak erostea, tarifak kudeatzea, emaitzak GRP edo CPM moduan aztertzea.
- Online komunikazioa. Marketing digitalaren estrategia. Online marketineko baliabideak erabiltzea (ADS, SEM, SEO, posta elektronikoa, sare sozialak, content marketing, web-analisia). Mantentze-lanak egiteko eta eguneratzeko webguneak.
- Sormena: offline eta online euskarriarako diseinuak, ikus-entzunezkoen sorkuntza. Webguneak sortzea.
- Ekitaldiak kudeatzea.
- Kazetaritza zerbitzuak. Albisteak, blogak, post-ak, memoriak, txostenak eta antzekoak idaztea.

Puntu honetan eskatutakoaren arabera aurretiazko esperientzia justifikatu ezin duen enpresa sortu berriek, horren ordez, zerbitzurako proposatutako profesionalen esperientzia egiaztatu ahalko dute.

2. Behar besteko diziplina anitzeko giza taldea duela egiaztatzea (kopuruan, gaitasunetan eta esperientzia profesionalen) agindutako zerbitzuak kaudimen osoz betetzeko (norberarena edo beste enpresa batzuekin elkartuta):

- Hedabideak online eta offline eran kudeatzeko kaudimena izatea. Euskarri bakoitzarekin harreman pertsonala izateko gaitasuna frogatu behar da.
- Zerbitzuak gaztelaniaz nahiz euskaraz eman ahal izatea.
- Aldian behin, zerbitzuak ingelesez ematea.

ZERBITZUA BETEKO DUTEN PROFESIONAL ZEHATZEI DAGOKIENEZ:

Enpresak komunikazio zuzendaritza bat izango duen proposamena egin beharko du, eta zerbitzu osoa izango da Demaren komunikazioa kudeatzeari dagokionez.

Baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Unibertsitateko titulua Komunikazio Zientzien espezialitate batean, eta komunikazioari edo kazetari-tzari lotutako master ofizial bat.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia izatea administrazio publikoen komunikazioaren kudeaketan.
- Gutxienez 2 urteko lan esperientzia izatea hedabideen kudeaketako eta taldeen zuzendaritzako postuetan.
- Teknikari profesional gisa, gutxienez 5 urteko lan esperientzia izatea hedabideetan: prentsa, irratia eta telebista.
- Sare sozialak erabiltzen jakitea (Twitter, Instagram, Facebook), community manager aritu izana (web-master) eta Google Analytics-en kontrolaren ezagutza izatea.
- Zerbitzuak EAEko bi hizkuntza ofizialetan betetzea (gaztelania eta euskara).

KAUDIMEN TEKNIKOARI DAGOKIONEZ:

3. Zerbitzua betetzeko instalazioak eta ekipamendu teknikoak, materiala eta softwarea izatea.

Baldintza horiek guztiak betetzen direla egiaztatu beharko da honako agiri hauek aurkeztuz:

- Enpresak behar bezala sinatutako eta zigilatutako adierazpena, enpresako langileen azken urteko batez bestekoa jasotzen duena, administraria, teknikaria eta zuzendaria bereizita, eta egungo langileak lanpostuen, kategorien eta enpresako antzintasunaren arabera sailkatuta.
- Azken 3 hilabeteetako Langileen Zerrenda Izenduna eta Kotizazioen Likidazioen Agiria.
- Zerbitzuak ematen parte hartuko duten enpresako pertsonen identifikazioa, haien lan kategoria, prestakuntza akademikoa eta lanbide esperientzia aipagarriena adieraziz. Beren curriculum osoak erantsiko di-

ra, gainera. Zenbait enpresak elkartuta parte hartzen badute, pertsona profesionala zer enpresatakoa den azalduko da, eta zerbitzuak iraun bitartean enpresa adjudikaziodunarekin izango duen harreman mota justifikatuko da.

- Zerbitzua betetzeko dituen instalazioak eta ekipamendu teknikoa eta materiala deskribatzea.
- Emaizten kalitatea kontrolatu eta gogobetetasuna neurtzeko enpresak erabiltzen dituen neurriak eta prozedurak.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan egin beharreko jarduerari dagokion altaren kopia.

Horrez gain, enpresa guztiek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Lehiakidea pertsona juridikoa bada, IFKren fotokopia, estatutuen eta eratze eskritura, behar bezala jasota kasuan kasuko erregistroan, merkataritza legedi edo legedi zibil aplikagarriarekin bat etorritik.
- Nolanahi ere, pertsona sinatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia eta erakundearen ordezkari modura gaitasun legala egiaztatzen duen ziurtagiria (izendapenaren ziurtagiria, ahalorde eskriturak, etab.).
- Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, **plegu hauen I. eranskinaren arabera**, eta honako hauek jasoko dira bertan: Sektore Publikoko Kontratuen Legean jasotako kontratatze debekurik ez duela; behar besteko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duela; behar besteko kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa duela; eta aurkeztutako proiektuari ekiteko behar besteko kaudimen teknikoa, profesionala eta kudeaketa kaudimena duela.

Aurkeztu beharreko dokumentazio guztiari dagokionez, DEMAk jatorrizko dokumentuak eskatu ahalko ditu hautapen prozesuaren edozein unetan, eta, nolanahi ere, prozedura bukatu ondoren.

8.- HAUTAGAITZAK AUKERATZEKO FASEA.

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez ere 10 eguneko epean, DEMAk jasotako guztiak aztertuko ditu; hala, prozedura horretatik baztertuko ditu iragarkian adierazitako kaudimen ekonomiko/finantziario eta tekniko/profesionaleko baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileak, eta baldintza horiek betetzen dituzten artetik **5 hautagaitza gutxienez** hautatuko ditu; jakinarazpena igorriko die posta elektronikoaren bidez, eta, jakinarazpen horretan, **10 eguneko epean** behin betiko proposamena aurkezteko eskatuko zaie.

Hautatu gabeko gainerako eskatzaileei posta elektronikoz emango zaie horren berri.

Baldintzak betetzen dituzten hautagaitzak bost baino gehiago badira, gehienez ere bost aukeratuko dira. Bost baino gutxiago badaude, daudenak aukeratuko dira, baldintzak betetzen badituzte.

9.- ENPRESA HAUTATUEK PROPOSAMENAK AURKEZTEKO FASEA

Enpresa hautatuek **10 eguneko epea** izango dute proposamena aurkezteko, DEMAren jakinarazpena jasotzen dutenetik zenbatzen hasita, eta **BI GUTUN-AZAL BEREIZI ITXITA** aurkeztu beharko dituzte.

A GUTUN AZALA: PROPOSAMEN TEKNIKOA

A gutun azalaren kanpoaldean honako hau jarriko da:

PROPOSAMEN TEKNIKOA. “DEMAREN KOMUNIKAZIO KORPORATIBOAREN AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA”. Halaber, enpresaren izena eta haren ordezkariaren izen-abizenak, kargua eta sinadura agertuko dira.

A gutun azal honetan, **eman beharreko zerbitzuaren azalpen memoria** jasoko da, plegu honen “kontratuaren xedea” izeneko puntuan zehaztutakoaren arabera. Azalpen memoria horretan, alderdi tekniko eta metodologikoen deskribapen zehatza eta xehatua jasoko da, bai eta enpresak kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko proposatzen dituen baliabide pertsonalak, materialak eta antolamendukoak ere, eta balorazio irizpide subjektiboak izango dira.

Gainera, A gutun azalean jasoko da KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, eta plegu honen **II. eranskinean** adierazitako eredu eta bete eta sinatuko da. Aurkezten ez diren proposamenak edo erantzukizuneko aitortpenaren eredura egokitzen ez direnak baztertu ahalko dira.

B GUTUN AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA

B gutun azalaren kanpoaldean honako hau jarriko da:

PROPOSAMEN EKONOMIKOA. “DEMAREN KOMUNIKAZIO KORPORATIBOAREN AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA”. Halaber, enpresaren izena eta haren ordezkariaren izen-abizenak, kargua eta sinadura agertuko dira.

B gutun azal honetan eskaintza ekonomikoa sartuko da. Eskaintza ekonomikoan gutxienez laneko kostuen, egitura kostuen eta beste gastu batzuen aurrekontu banakapena jasoko da. **III. eranskinean (PROPOSAMEN EKONOMIKOA)** jasotako ereduari egokitu beharko zaio, eta behar bezala sinatuta aurkeztu.

Ezarritako proposamen eredura eta jarraibide hauetara egokitzen ez diren proposamenak kanpoan utzi ahalko dira.

10.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Kontratu honen adjudikazioa hainbat adjudikazio irizpide erabiliz egingo da, **prezio-kalitate erlaziorik onenean oinarritutako adjudikatzeko irizpide ugari erabiliz**. Irizpide horiek honako hauek izango dira:

A) PROPOSAMEN EKONOMIKOA (55 puntu). Ikuspuntu ekonomikotik eskaintzarik abantailatsuenak lortuko du puntuaziorik altuena. Honako formula hau jarraituko da:

$$\text{Aurkeztutako eskaintzaren puntuazioa} = (\text{Eskaintzarik abantailatsuenaren balioa} \div \text{aurkeztutako eskaintzaren balioa}) \times 55$$

Printzipioz, anormaltasun presuntziotzat joko dira kasu hauetan dauden eskaintzak:

- 1.Lizitzaile bakarra dagoenean (aurrerantzean, lizitzailea), lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak baino ehuneko 25 ale gutxiago dituenean.
2. Bi lizitzaile daudenean, beste eskaintzaren aldean ehuneko 20 ale baino gutxiago dituenean.
- 3.Hiru lizitzaile daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko ehuneko 10 aletan baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta ehuneko 10 aletan baino gehiagotan handiagoa bada. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da ehuneko 25 aletik gorako beherapena.
- 4.Lau lizitzaile edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko ehuneko 10 aletan baino gehiagotan txikiagoak direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa ehuneko 10 aletan baino gehiagotan gaintzen dituzten eskaintzak badaude, batez besteko berria kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da. Puntuazio handiena ematea erabaki da prezio txikiagoa eskaintzen duen lizitzaileari, eta txikiena prezio handiagoa eskaintzen duenari, baina puntu-esleipenean proportzio egokia gordez tartekoetan, kontratazio publikoa arautu behar duten printzipioak betetzeko.

B) PROPOSAMEN TEKNIKOA (45 puntu): Ikuspuntu tekniko-metodologikotik eskaintzarik abantailatsuenak lortuko du puntuaziorik altuena; horretarako honako balorazio irizpide hauek jarraituko dira:

LAN PLANA ETA PROPOSATUTAKO METODOLOGIA: (23 PUNTU)

Kontratuaren xede den lanaren antolaketa, plangintza eta garapen metodoaren azalpen zehatza, aplikatu beharreko metodologia adieraziz. Azalpenak balorazioaren xede diren alderdi guztiak jaso beharko ditu berariaz, eta kontratuko lanen eta kontratuaren esku jarritako baliabide tekniko eta giza baliabideen arteko koherentzia erakutsi beharko du. Halaber, kontraturako aurreikusitako ikuskapen, kontrol eta ebaluazio sistemak zehaztu beharko ditu. Hauxe baloratuko da:

- **Lan planaren kalitatea eta egokitasuna.** Lan estrategiaren kalitatea, koherentzia eta DEMAren eta **Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren** beharretara egokitzea baloratuko dira. DEMAren ekintzak sustatze aldera komunikazio-estrategia eta eduki egoki nahiz erakargarrien sorrera aldiari-aldiari prestatzeko eta berrikusteko proposatzen diren ekintzak baloratuko dira. Zerbitzu integrala baloratuko da: estrategia prestatzea, edukiak idaztea, eta Interneten eta sare sozialetan argitaratzea. **(12 puntu)**
- **Lan antolaketa.** Lan antolaketaren maila, metodoak eta tresnak baloratuko dira. DEMAri eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari arreta emateko formulak. Langileak antolatzeko metodoa, lanean eta erantzun-denboretan zerbitzua emateko eta arin erantzuteko. **(6 puntu)**
- **Monitorizazio proposamena eta sare sozialetan neurtzeko eta ebaluatzeko tresnen multzoa. (3 puntu)**
- **Lizitatuak eskaintako hobekuntzak.** Eskatutakoez besteko ekarpenak baloratuko dira, proposamen teknikoan hobekuntzak eskaintzen badituzte. **(2 puntu)**

GIZA TALDEA. PROPOSATUTAKO PROFESIONALAK: (22 PUNTU)

Jadanik egiaztatu diren gutxieneko lanbide baldintzen gainetik, haien prestakuntza, esperientzia, profesionaltasuna baloratuko dira, bai eta balio anitzekoak izatea ere: lanen beharretara egokitzen diren profesional gaituak izatea. Baloratuko da:

- Diziplina anitzeko taldea. Talde horretan biltzen dira, komunikazioaren, komunikazio kanpainen kudeaketaren, diseinuaren eta webguneetan nahiz sare sozialetan argitaratzearekin zerikusia duen teknikaren alderdiak. **(2 puntu)**
- Profesionalen unibertsitate prestakuntzaren osagarritasuna Graduondoko prestakuntza eta komunikazio arloko prestakuntza osagarria. **(2 puntu)**
- Hizkuntzak. Euskara nahitaezkoa da; horrez gain, beste hizkuntza batzuk jakitea ere baloratuko da, ingelesa, batez ere. **(2 puntu)**
- Community manager gisako gaitasunak eta urteetako esperientzia izatea. **(2 puntu)**
- Entitateei emandako komunikazio zerbitzuetan urteetako esperientzia izatea; erakunde publikoei emandakoak baloratuko dira bereziki, eta Aldundiko edo Eusko Jaurlaritzako entitateei lehentasuna emango zaie. **(4 puntu)**
- Hedabideetan teknikari-profesional postuetan urteetako esperientzia izatea: prentsa, irrati eta telebista. **(4 puntu)**
- Urteetako esperientzia izatea hedabideen kudeaketako eta taldeen zuzendaritzako postuetan **(4 puntu)**

- Oinarrizko diseinu programak, datu baseak, edukien kudeatzailea eta web programazioa ezagutu eta erabiltzea. (2 puntu)

25 puntuko gutxieneko atalasea ezartzen da irizpide tekniko guztietan, eta zenbateko hori lortzen ez duten enpresak baztertu egingo dira.

11.- KONTRATAZIO ORGANOA

DEMAko kontratazio organoa entitateko teknikari eta zuzendariak osatuko dute, eta organo horrek egingo du hautagaitzen balorazioa. DEMAko gerentziak izango du presidentzia eta adjudikazioa ere gerentziak sinatuko du.

Prozesu honen inguruko edozein erreklamazio edo kontsulta egin nahi izanez gero mezu bat igorri beharko da contratos@dema.eus helbidera edo gutuna bidali beharko zaio DEMAko gerentziari.

12.- HAUTAPEN EPEAK

Hautapena ahal bezain azkar egingo da, eta DEMAk adjudikazio prozedura hau 2020/12/28a baino lehen ebazteko konpromisoa hartzen du.

13.- PROZEDURAREN ADJUDIKAZIOA

Kontratazio epaimahaiak proposamen bakoitza baldintzen plegu honetan argitaratutako irizpideen arabera baloratuko ditu, eta kontratazioa proposamenik abantailatsuenari adjudikatuko dio edo prozedura eman gabetzat joko du, ulertzen badu proposamenek ez dituztela zerbitzuaren helburuak betetzen. Kasu batean zein bestean, lehiakideek ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Prozedura eman gabetzat jotzen ez bada, kontratazio epaimahaiak prozedura adjudikatu ahalko dio baldintzen plegu honetan jasotako balorazio irizpideei erreparatuz irizpideetan hobeto kokatzen den proposamenari eta proposamen abantailatsuenari, kalitate-prezioa lotura onenean oinarrituz. Hala ere, irizpide ekonomikoaren barruan, eskainitako zerbitzuetarako ondorioztatu daitekeen balioari modu logikoan hobekien egokitutako eskaintza aukeratzeko joera izango du.

DEMAk prozeduraren ebazpenaren berri emango die posta elektronikoz entitate parte hartzaile guztiei. Entitate adjudikaziodunak, horrez gain, posta elektronikoki atxikita, kontratuaren adjudikazio dokumentua jasoko du, eta kontratua sinatzeko epea eta zerbitzuen hasierako data ere jakinaraziko zaizkio.

14.- SINATU BEHARREKO KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituz egingo den kontratua kontratu pribatu gisa hartuko da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak 26. artikuluan araututakoa dela bide, legedi zibil eta merkataritza legedian oinarrituz; izan ere, DEMA sektore publikoko entitatea da, eta ahalmen adjudikatzailea duenez, ez du administrazioa publikoaren izaerarik betetzen.

Enpresa adjudikazioduna prest egon beharko da sinatu ondoren zerbitzuak berehala ematen hasteko.

Kontratatari leporatu ahal zaizkion arrazoiak direla medio kontratua ezin bada formalizatu, DEMAk kontratua bertan behera uztea erabaki ahalko du, interesdunari entzunaldia eskaini ondoren, eta kalte eta galeren ondoriozko kalte-ordainarekin.

15.- KONTRATAZIOAK ETA AZPIKONTRATAZIOAK

Adjudikaziodunak indarrean dauden lege eta arauzko xedapen ohikoak bete beharko ditu, eta aplikagarriak izango dira lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasun arloetan. Kontratuak xede duen jarduera egingo duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboan adierazi behar dute lizitatzailerak, baldin eta adjudikaziodunak badira. Gainera, kontratua adjudikatu ondoren, langile horiei aplikatuko zaizkien baldintzei buruz eskatutako beste edozein informazio eman beharko dute. Kontratua gauzatu bitartean, adjudikaziodunak bete behar den hitzarmen kolektiboan adierazitako ordainsaria ordaindu beharko du, langileen maila profesionalaren arabera. Ordaindu beharreko ordainsaria ez da inoiz hori baino txikiago izango.

Eskaintza aurkezten duen enpresak beste enpresa batzuen laguntza behar badu zerbitzuen zati bat betetzeko, hasieratik eman beharko du horren berri. Kaudimen tekniko-profesionalean nahiz eskaintza tekniko-ekonomikoan jaso beharko du hori, enpresa laguntzaileak zein diren aipatuz, elkarren artean duten harreman juridikoa eta horren iraupena zehaztuz, eta baita enpresak baliatuko dituen kanpoko bitarteko batzuen profesionalekin duen harremana ere.

Kontratuak iraun bitartean enpresa adjudikaziodunak eman beharreko zerbitzuren bati eragingo dion alderdiren bat partzialki azpikontratatu nahi badu, aurrez DEMAr jakinarazi beharko dio, eta agentziak onartu egin beharko du. DEMAk aurrez onartzeko baldintza hori betetzen ez bada, agentziak kontratua suntsiarazi ahalko du.

16.- DATUAK BABESTEA

Entitate adjudikaziodunak datu pertsonalak babesteari dagokionez indarrean dagoen araudia bermatuko du, eta, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua; horren bidez, pertsona fisikoen babesa arautu zen, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrik gabe utzi zen 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), aurrerantzean DBEO, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Esleipendun gertatzen den enpresak berriazko kontratua sinatuko du DEMArekin, datu pertsonalak tratatzeko arduradun gisa.

17.- GIZARTE KLAUSULAK. LEHENTASUNA, BERDINKETA BADAGO

1.- Lehentasuna dibertsitate funtzionalaren arloan. Enpresa lizitzaile bi edo gehiago berdinduta badaude, adjudikaziorako oinarritzat hartutako irizpideen ikuspuntutik lehenetsiko da kaudimen teknikoa egiaztatzeko unean bere plantillan desgaitasuna duten langileen kopurua % 2 baino handiagoa duen enpresaren proposamena.

Proposamen abantailatsuenei dagokienez zenbait lizitzaileen artean berdinketa egon bada, eta gutxienez % 2ko mailan desgaitasunen bat duten langileekin lan harremana dutela egiaztatzen badute, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen portzentaje handiena duen lizitzaileak izango du kontratuaren adjudikaziorako lehentasuna.

2.- Lehentasuna berdintasun arloan. Bi proposamenek edo gehiagok berdinduta jarraitzen badute (aurreko puntua bete ondoren), eskaintzak baloratzeko irizpideen ikuspegitik abantailatsuenak direnak, kaudimen teknikoa egiaztatzeko unean enpresa edo entitateek aurkeztutako proposamenek izango dute lehentasuna:

- Erakunde publiko batek emandako “Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuneko erakunde laguntzailea” ziurtagiria izatea.
- Berdintasun plan bat prestatu eta aplikatu izana.
- Laneko bazterketa mota oro saihesteko, emakumeen eta gizonen artean aukera berdintasuna lortzeko edo lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak hartu izana egiaztatu badute.
- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko neurriak betetzea, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoak eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoak.

18.- BERMEAK:

Ez dira eskatzen.

I. ERANSKINA – GAITASUNARI ETA KAUDIMENARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

“DEMAREN KOMUNIKAZIO KORPORATIBOAREN AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA KUDEAKETA
ZERBITZUA”

(Aldi baterako enpresa batasunen kasuan, enpresa kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du)

.....jaunak/andreak
helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....;
helbide elektronikoa:....., gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna ditu, bere izenean
(edo..... ren izenean:.....; telefono zenbakia:.....; IFK:.....).

ADIERAZTEN DU:

Sektore Publikoko Kontratuen Legean jasotzen diren kontratatzeko debekuetako batean ere ez egotea, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa izatea, kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa izatea, bai eta aurkeztutako zerbitzuari ekiteko kaudimen tekniko, profesional eta kudeaketa kaudimen nahikoa ere, DEMARI aukera emanez edozein unetan eskatzeko aurkeztutako justifikazioak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen jatorrizko dokumentazioa, eta instalazioetara bisita egitea, beharrezkotzat jotzen bada.

Berariaz adierazten du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, bai eta lan-arriskuei eta ingurumen-politikei dagokienez ere.

..... (e) n, 20..... (e) ko..... aren..... (e) (a) n

Sinadura

II. ERANSKINA - KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

“DEMAREN KOMUNIKAZIO KORPORATIBOAREN AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA”

(Aldi baterako enpresa batasunen kasuan, enpresa kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.)

.....jaunak/andreak
helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....;
helbide elektronikoa:....., gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna ditu, bere izenean (edo..... ren izenean:.....; telefono zenbakia:.....; IFK:.....).

ADIERAZTEN DU:

Lan araudia betetzeari dagokionez: Eskaintza egiteko, kontuan hartu direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aplikatzekoa den araudia eta Europar Batasuneko zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duten ingurumen, gizarte eta lan arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ingurumen-, gizarte- eta lan arloan aplikatzekoa den araudia, eta bermatu direla, halaber, lan-eskubideak aplikatuko zaizkiela kontratua betearazten parte hartzen duten langileei. Enpresak lan-arloan, gizarte-segurantzian eta laneko arriskuen prebentzian indarrean dagoen araudi guztia betetzen duela.

Enpresak bere gain hartzen du ekoizpen kate osoan oinarritako lan eskubideak errespetatzeko betebeharra, bai eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzekoa ere, eta, bereziki, honako hauek.

- 29. eta 105. Konbentzioak, lan behartua ezabatzeari buruzkoak.
 - Sindikatu, elkarte eta negoziazio askatasunari buruzko 87. eta 98. Konbentzioak
- Kolektiboa.
- 100. Konbentzioa, balio bereko lanaren truke gizonen eskulanaren eta emakumezkoen eskulanaren arteko ordainsari berdintasunari buruzkoa.
 - 111. Konbentzioa, arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko, erauzketa nazional edo jatorri sozialagatik enplegua lortzeko diskriminazioaren eta lan baldintzen aurkakoa.
 - 138. Konbentzioa, haurren esplotazioa eta lana abolitzeari buruzkoa.
 - 182. Konbentzioa, haurren lan modurik okerrenak debekatzeari eta horiek ezabatzeko berehalako ekintzari buruzkoa.

Jazarpena prebenitzeko eta arlo horretako erreklamazioak bideratzeko legezko betebeharrari dagokionez: Kontratuaren esleipendun izanez gero, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 48. artikuluan ezarritakoa betez, bere gain hartzen duela sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesten duten lan-baldintzak sustatzeko betebeharra, bai eta prozedura espezifikokoak ezartzeko betebeharra ere, halakoak prebenitzeko eta horien xede izan direnek egin ditzaketan salaketak edo erreklamazioak bideratzeko. Era berean, konpromisoa hartzen du kontratuaren indarraldiko edozein unetan kontratuaren arduradunaren aurrean betebehara hori betetzen dela egiaztatzeko, hark hala eskatzen badio..

Hitzarmen kolektiboari eta soldatari dagokionez: Esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa honako hau da::

Hitzarmenaren izena:

Aldizkari Ofizialean argitaratua:

Argitalpen data:

Kontratua gauzatzen den bitartean, sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzeko

konpromisoa hartzen duela, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ezin dela inola ere txikiagoa izan.

Enpleguari eta plantillari eusteari dagokionez: Hona hemen zerbitzuak gauzatzeko erabiliko duten langile-kopurua, kontratu-tipologia eta lanaldia, urteko lanorduetan adierazita:

Enplegatua:

Lan kontratu mota:

Urteko ordu-kopurua:

Kontratuan zehar plantilla homogeneoa ez den kasuetarako, konpromisoa hartzen duela egutegi zehatz bat aurkezteko, honako hauek zehaztuta: zenbat langile erabiliko diren kontratua gauzatzeko, langile bakoitzak urteko lanaldia lanordutan izango duen, eta kontratuaren hasiera eta amaiera datak..

Baliabide materialak eta/edo giza baliabideak esleitzeari dagokionez: Esleipendun izanez gero, eta kontratua gauzaten den bitartean, bere gain hartzen duela proposamen tekniko-profesionalean azaldutako baliabide pertsonalak kontratuari atxikitzeke betebeharra..

Era berean, bere gain hartzen du Bizkaian egoitza sozial edo establezimendu bat kontratuari atxikitzeke betebeharra, zerbitzu hori emateko beharrezkoak diren lanak egin ditzan.

Nolanahi ere, kontratua behar bezala gauzaten dela bermatzeko beharrezkoak diren harremanak eta komunikazioak bideratzeko, solaskide bat izendatuko da, kontratua gauzatzeari buruzko komunikazioak jasotzeko. Solaskideari dagokio exekuzioaz arduratzen diren pertsonen jakinaraztea DEMAk planteatzen duen zerbitzua emateari buruzko gaiak..

Solaskidearen izen abizenak eta helbide elektronikoa:

Zerbitzuak emango dituen giza taldeari dagokionez: Talde teknikoko kide bat ordeztu aurretik, DEMAri jakinarazi beharko zaio ordezkaren izena, bai eta kontratu hau arautzen duten agiritan eskatzen diren prestakuntza- eta esperientzia-betekizunak egiaztatu ere. DEMA izango da ordezkapenarekiko adostasunaren edo desadostasunaren erantzulea. Aurretiazko baimenaren betebeharrak ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, funtsezko betebeharrak ez betetzea baita..

Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluari dagokionez: Ordezkatzen duen enpresak:

Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean badago.

EZ dago Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko ezein kasutan.

Erantzuna baiezkoa bada:

EZ du parte hartzen kontratua esleitzeko orduan, baldin eta enpresa horiek, talde berekoak izanik, edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezkari kasuren bat izanik, banakako proposamenak aurkezten badituzte..

Kontratua esleitzeko, talde berekoak diren enpresekin edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezkari kasuren bat duten enpresekin parte hartzen badute, banakako proposamenak aurkezten dituzte. Hona hemen proposamen horiek:

IFZ eta Izen soziala

Konpromisoa hartzen duela baldintza tekniko eta administratiboen agiri honetan jasotako eta enpresak bere proposamen teknikoan proposatutako gauzatze baldintza guztiak betetzeko.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan,

Lekua, data eta sinadura.

III. ERANSKINA - PROPOSAMEN EKONOMIKOA

“DEMAREN KOMUNIKAZIO KORPORATIBOAREN AHOALKULARITZA, LAGUNTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA”

(Aldi baterako enpresa-batasunen kasuan, enpresa kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.)

.....jaunak/andreak
helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....;
helbide elektronikoa:....., gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna ditu, bere izenean
(edo..... ren izenean:.....; telefono zenbakia:.....; IFK:.....).

ADIERAZTEN DU:

1) Konpromisoa hartzen dudala **"Demaren komunikazio korporatiboaren aholkularitza, laguntza eta kudeaketa zerbitzua"** izeneko proiektua ebaluatzeko zerbitzua emateko, honako prezio honen truke:.....euro (letretan eta zenbakietan idatzi) gehi BEZaren % 21, urtebeteko epean. Prezioan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertu behar da, zergak (BEZa izan ezik), gastuak, tasak eta edozein zerga-ariotako arielak barne, baita kontratistaren onura ere. Baldintza agiritako "kontratuaren xedeari" buruzko puntuan deskribatutako zerbitzu guztiak hemen proposatutako prezioan emango dituela onartzen du.

Lehen aipatutako prezioa zerbitzu osoari dagokio, eta jarraian, honako partida hauetan banakatzen da:

Lan kostuen banakapena:

Egiturazko kostuen banakapena:

Beste kostu batzuen banakapena:

2) Ezagutzen ditudala esleipen prozeduraren baldintza agiria eta esleipen hau arautuko duten gainerako agiriak, eta beren-beregi onartzen ditudala.

3) Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak.

..... (e) n, 20..... (e) ko..... aren..... (e) (a) n.

Sinadura